**2015eko UZTAILAREN 23ko UDALBATZARRA**
PLENO DE 23 DE JULIO DE 2015

**BERTARATUAK /** ASISTEN**:**

**ALKATEA /** ALCALDE: **JOSU IRATZOKI AGIRRE**

**ZINEGOTZIAK** / CONCEJALES Y CONCEJALAS**:**
**Mª ARANZAZU ZUBIETA OCHOTECO, JOSE MANUEL PORTU BERASATEGUI, IXONE TELLECHEA URANGA, AITOR ELEXPURU EGAÑA, MIKEL LERCHUNDI CORTA, GERMAN CASTILLO LAZCANOTEGUI, JOSE MIGUEL GORRIA VICUÑA, JOSE ANTONIO OYARZABAL IRIBAS, JUAN LOSA OCARIZ.**

**IDAZKARIA** / SECRETARIA: **PILAR CHUECA INTXUSTA.**

**BERTARATU EZ DIRENAK /** NO ASISTEN:
**RAQUEL QUIROGA TAPIA (lana** / trabajo**).**

**Tokia: BERAko Herriko Etxea**
**Eguna: 2015-07-23**
**Ordua: 19:30**
**Bilera-mota: ohikoa, 1. deialdia**

Lugar: Casa Consistorial de BERA
Día: 23-07-2015
Hora: 19:30
Tipo sesión: ordinaria, 1ª convocatoria.

**TRATATZEKO GAIAK:**

ASUNTOS A TRATAR:

**1.- AZKENEKO AKTA ONARTZEA.-**

1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR.-

***Idazkariak akats bat badela komentatu du: Hirigintza Lan batzordean German Castillo Lazcanotegui agertzen da baina Raquel Quiroga Tapia izan behar da.***

*La Secretaria informa que hay un error en el acta: En la Comisión de trabajo de Urbanismo aparece Germán Castillo Lazcanotegui cuando debería ser Raquel Quiroga Tapia.*

**Hori dela eta, 2015.eko ekainaren 30ean egindako bileraren akta ikusirik, aho batez, ONARTU DUTE lehen aipatu den zuzenketarekin.**

Por lo que vista el acta de la sesión celebrada el día 30 de junio de 2015, por unanimidad, SE APRUEBA con la corrección antes indicada.

**2.- ANIMSAKO JUNTA OROKORREAN**

DESIGNACIÓN DE REPRESENTANTE EN

**UDAL ORDEZKARI IZENDATZEA.**

LA JUNTA GENERAL DE ANIMSA.

***Alkateak aipatu du, normalean, honetarako, Alkatea dela udal ordezkari eta ordezko izateko Mª Aranzazu Zubieta zinegotzia proposatu du.***

*El Alcalde comenta que, normalmente, suele ser el Alcalde el representante y para su sustitución propone a la concejal Mª Aranzazu Zubieta.*

***Aho batez, eginiko proposamena onartu eta honako erabakia hartu dute:***

*Por unanimidad, se acepta la propuesta y se adopta el siguiente acuerdo:*

**Asociación Navarra de Informática Municipal s.a. (ANIMSA) izenekoaren akziodunen Batzar Orokorrean parte hartzeko Udal ordezkari izendatu behar dela eta.**

Siendo necesaria la designación de representante del Ayuntamiento para la Junta General de accionistas de la Asociación Navarra de Informática Municipal s.a. (ANIMSA)

**ERABAKI DUTE:**

SE ACUERDA:

**1) JOSU IRATZOKI AGIRRE Alkatea BERAko Udalaren ordezkari izendatzea, eta Mª ARANZAZU ZUBIETA OCHOTECO horren ordezko, Asociación Navarra de Informática Municipal s.a. (ANIMSA)n eta, bereziki, ANIMSAN ospatzen diren Batzar Nagusietarako.**

1) Designar al Alcalde JOSU IRATZOKI AGIRRE como representante del Ayuntamiento de BERA en la Asociación Navarra de informática Municipal, s.a. (ANIMSA), y en especial, para asistir en representación del Ayuntamiento a cada una de las Juntas Generales que celebre ANIMSA, y como sustituta a la concejal Mª ARANZAZU ZUBIETA OCHOTECO,

**3.- CEDERNA-GARALURREN ORDEZKO IZENDATZEA.**

3.- NOMBRAMIENTO DE SUSTITUTO/A EN CEDERNA-GARALUR.

***Idazkariak azaldu du aurreko osoko bilkuran ordezkaria izendatu zela baina horren ondotik Cedernaren idatzia ailegatu zen erranez ordezkoa ere izendatu behar zela.***

*La Secretaria explica que en el anterior Pleno se nombró el representante municipal pero, posteriormente, llegó un escrito de Cederna indicando que, también, debía nombrarse a un sustituto o sustituta.*

***Alkateak, Mª Aranzazu Zubieta zinegotzia proposatu du eta, hau onarturik, aho batez, honako erabakia hartu dute:***

*El Alcalde propone a la concejal Mª Aranzazu Zubieta y, aceptada la propuesta, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

**ERABAKI DUTE:**

SE ACUERDA:

**1) Mª ARANZAZU ZUBIETA OCHOTECO zinegotzia CEDERNA-GARALUR ELKARTEAN udal ordezkariaren ordezko izendatzea.**

1) Nombrar a la concejal Mª ARANZAZU ZUBIETA OCHOTECO sustituta del representante municipal en la ASOCIACIÓN CEDERNA-GARALUR.

**4.- CEDERNA-GARALUR ELKARTEAREN ZUZENDARITZA BATZORDERAKO ESKUALDEKO HAUTAGAIA PROPOSATZEA.**

***Alkateak gaia azaldu eta erran du Bortzirietako udalei proposatu diela bera eskualde honetako hautagai izatea.***

***Horren ondotik, aho batez, honako erabakia hartu dute:***

**Ikusirik, CEDERNA-GARALURrek bidalitako idatzia non jakinarazi duen elkarte honetako Zuzendaritzako Batzordea berritzeko hauteskunde prozesua hasi dutela eta Batzorde berri horretan zonaldeko ordezkaria hautesle proposatzen ahal dela.**

**ERABAKI DUTE:**

1) **Aipatutako Zuzendaritzako Batzordean Bortzirietako ordezkari gisa Udal honetako Alkatea den JOSU IRATZOKI AGIRRE proposatzea.**

2) **Erabaki hau Cederna-Garalur Elkarteari bidaltzea.**

4.- PROPUESTA DE CANDIDATO DE LA COMARCA A LA JUNTA DIRECTIVA DE LA ASOCIACIÓN CEDERNA-GARALUR.

*El Alcalde explica el asunto y dice que ha propuesto a los Ayuntamientos de Bortziriak ser él el candidato de esta comarca.*

*Tras lo cual, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

Visto escrito remitido por CEDERNA-GARALUR en el que comunica que ha iniciado el proceso electoral para la renovación de la Junta Directiva de dicha asociación y se puede proponer el candidato/a como representante comarcal en la nueva Junta Directiva.

SE ACUERDA:

1) Proponer como representante de Bortziriak en la Junta Directiva citada al Alcalde de este Ayuntamiento JOSU IRATZOKI AGIRRE.

2) Trasladar este acuerdo a la Asociación Cederna-Garalur.

**5.- BERA ETA LESAKAKO URAREN GOI HORNIDURAKO KONPONBIDE BATERATUA GAUZATZEKO BORONDATEZKO UDAL ELKARTEAREN KOORDINAZIO BATZORDEAN ORDEZKARIAK IZENDATZEA.**

***Josu Iratzoki Agirre Alkatea eta Jose Manuel Portu Berasategui zinegotzia ordezkari gisa eta, hurrenez hurren, German Castillo Lazcanotegui eta Jose Antonio Oyarzabal Iribas zinegotziak ordezko izendatzeko proposatu***

5.- NOMBRAMIENTO DE REPRESENTANTES EN LA COMISIÓN DE COORDINACIÓN DE LA ASOCIACIÓN VOLUNTARIA DE MUNICIPIOS PARA LA SOLUCIÓN COMÚN BERA-LESAKA EN EL ABASTECIMIENTO DE AGUA EN ALTA.

*Se proponen como representantes el Alcalde Josu Iratzoki Agirre y el concejal José Manuel Portu Berasategui y como sustitutos los concejales Germán Castillo Lacanotegui y José Antonio Oyarzabal Iribas, respectivamente.*

***dituzte.***

***Horren ondotik, aho batez, honako erabakia hartu dute:***

*Tras lo cual, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

**Bera eta Lesakako uraren goi hornidurako konponbide bateratua gauzatzeko borondatezko udal elkartea eratzeko hitzarmenari jarraikiz Koordinazio Batzordean Berako Udalaren bi ordezkari izendatu behar dira.**

De acuerdo con el convenio para la creación de la Asociación voluntaria de municipios para la solución común Bera-Lesaka en el abastecimiento de agua en alta hay que designar dos representantes para la Comisión de Coordinación.

**Hori dela eta, ERABAKI DUTE:**

Por ello, SE ACUERDA:

**1) Lehen aipatu den Koordinazio Batzordeko honako ordezkari eta ordezko hauek izendatzea:**

1) Designar a las siguientes personas como representantes del Ayuntamiento y sustitutos en la Comisión de Coordinación, antes citada:

**- JOSU IRATZOKI AGIRRE Alkatea ordezkari eta GERMAN CASTILLO LAZCANOTEGUI ordezko .**
**- JOSE MANUEL PORTU BERASATEGUI ordezkari eta JOSE ANTONIO OYARZABAL IRIBAS, ordezko.**

- JOSU IRATZOKI AGIRRE representate y GERMAN CASTILLO LAZCANOTEGUI suplente.
- JOSÉ MANUEL PORTU BERASATEGUI representante y JOSE ANTONIO OYARZABAL IRIBAS suplente.

**2) Erabaki hau Lesakako Udalari bidaltzea.**

2) Trasladar este acuerdo al Ayuntamiento de Lesaka.

**6.- SISTELEC-EKO ANTENA ERABILTZEKO INTERES PUBLIKOA DEKLARATZEKO ESKAERA: AZTIBEGIA KULTUR ELKARTEA.**

6.- SOLICITUD DECLARACIÓN DE INTERÉS PÚBLICO PARA UTILIZACIÓN ANTENA SISTELEC: AZTIBEGIA KULTUR ELKARTEA.

***Alkateak azaldu du:***
***Larungo Sistelec s.l.aren antenan jartzeko eskaera bat dago udal interes gisa deklaratzeko, hots, AZTIBEGIA KULTUR ELKARTEArena, horrelako deklarazioa baldin badute ez baitute ordaindu behar instalazioarengatik.***
***Bere ustez, honek betetzen ditu deklarazioa egiteko betebeharrak, alegia, irabazi gabeko elkartea da eta euskaraz emititzen du,***
***Beraz, proposamena da elkarte honi udal interes gisa deklaratzea.***

*El Alcalde informa que hay una solicitud de declaración de interés municipal para su instalación en la antena de Sistelec s.l. en Larun, a saber, AZTIBEGIA KULTUR ELKARTEA y si se dispone de esta declaración no tienen que pagar por instalarse.*

*En su opinión, cumple los requisitos para hacer dicha declaración ya que es una asociación sin ánimo de lucro y emiten en euskera.*
*Por ello, la propuesta es declarar de interés municipal dicha Asociación.*

***Horren ondotik, denek bat egin dute proposamenarekin eta, aho batez, honako***

*Tras ello, todos y todas las concejalas muestran su conformidad con la propuesta y, por*

*erabaki hau hartu dute:*

*unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

**Ikusirik, AZTIBEGIA KULTUR ELKARTEAk eginiko eskaera non Larun mendian Sistelec s.l. enpresak kudeatzen duen telekomunikazio espaizioan-azpiegituran erabiltzeko, sustatzen duten "Info 7" irrati-egitasmoaren seinalea zabaltzeko, Udalak interes munizipalerako deklaratzea eskatzen duen.**

Vista solicitud realizada por AZTIBEGIA KULTUR ELKARTEA en la que solicita la declaración de interés municipal para utilizar la infraestructura de telecomunicaciones que gestiona la empresa Sistelec s.l. en el monte Larun con el motivo de ampliar la señal del proyecto de radio "Info 7" que promueven.

**Kontuan hartuz, aipatu elkarteak irabazi gabeko elkartea dela eta euskaraz emititzen duela.**

Teniendo en cuenta que la citada asociación es una asociación sin ánimo de lucro y emite en euskera.

**ERABAKI DUTE:**

SE ACUERDA:

**1) Lehen emandako arrazoiengatik AZTIBEGIA KULTUR ELKARTEA udal interes gisa deklaratzea Larungo Sistelec s.l.-k duen telekomunikazio azpiegituran instalatzeko ondorioetarako.**

1) Por las razones antes señaladas declarar de interés municipal a la Asociación AZTIBEGIA KULTUR ELKARTEA a los efectos de su instalación en la infraestructura de telecomunicaciones de Sistelec s.l. en Larun.

**2) Erabaki hau eskatzaileei eta Sistelec s.l. enpresari jakinaraztea.**

2) Notificar este acuerdo a la solicitante y a la empresa Sistelec s.l.

**7.- ITURLANDETAKO BEILATOKIAREKIN SORTUTAKO ARAZOEN ANTZINEAN UDALAK EMAN BEHARREKO PAUSOAK.**

7.- MEDIDAS A TOMAR POR EL AYUNTAMIENTO ANTE LOS PROBLEMAS SURGIDOS CON EL VELATORIO DE ITURLANDETA.

***Alkateak aipatu du badakitela horretan dagoen arazoa eta pentsatu dutela bi aldeekin biltzea, bizilagunekin gaur bertan eta Iratxekoekin oporretatik bueltan (irailean), haien iritziak jaso eta pausuak eman arazoa konpontzeko.***

*El Alcalde manifiesta que ya se sabe el problema que hay allí y han pensado reunirse con las dos partes, hoy mismo con los vecinos y vecinas y con Iratxe a la vuelta de las vacaciones (septiembre), recoger las opiniones de cada una de las partes y dar pasos cara a su solución.*

***Hori dela eta, aho batez, honako erabakia hartu dute:***

*De este modo y por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

**Iturlandetako beilatokiarekin sortutako arazoak direla eta.**

Con motivo de los problemas surgidos con el velatorio de Iturlandeta.

**ERABAKI DUTE:**

**1) Nahiz bizilagunekin nahiz Iratxe enpresarekin biltzea eta, horren ondotik, irtenbidea bilatzeko zein aukerak dauden ikustea.**

SE ACUERDA:

1) Celebrar sendas reuniones con los vecinos y vecinas y con la empresa Iratxe y, tras ello, ver qué posibilidades se encuentran para su solución.

**8.- BANDOAK ETA ALKATEAREN EBAZPENAK.-**

**Honako bando eta Alkatetzaren ebazpen hauetaz jakinen gainean gelditu dira:**

**1) Bandoak: 12/2015etik 16/2015era.**

**2) Ebazpenak: 2015eko ekainaren 15eko 166. ebazpenetik 2015eko uztailaren 15eko 205.era arte.**

8.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.-

Quedan enteradas y enterados de los siguientes bandos y resoluciones de Alcaldía:

1) Bandos: del 12/2015 al 16/2015.

2) Resoluciones: De la resolución nº 166 de 15 de junio de 2015 a la nº 205 de 15 de julio de 2015.

**9.- ESKARIAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEN KONTROLA.**

**Ez dira burutu.**

9.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN.

No se producen.

**Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat eman du 20:00etan.**

No habiendo más asuntos, el Alcalde levanta la sesión a las 20:00 horas.

**O.E. ALKATEA/** V.B. EL ALCALDE
Josu Iratzoki Agirre

**IDAZKARIA/** LA SECRETARIA
Pilar Chueca Intxusta